

# K...eta! Kitto!

2016-IX-23

985 zkia.

## Arimako BIHARRA arte bihurtuta



**EUKi**  
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



**AUTO ASEGURUA**  
MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA, KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAINZA**



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belauztegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldezkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LASTAMARRARA.-** Lastoz egindako koltxoia. *"Lastamarrara biguna gertau dot, Asolartzako maluta barrixagaz"*.

**LASTAZAU.-** Gauzez mendian ibiltzeko su emanda argia egiteko erabiltzen den lasto multzoa. Zuzia, lastargia. Gaztelarazko *'antorcha'*. *"Hartizuz hiru lastazau biderako, gaur ez dago ba iratargirik"*.

## astean esanak

"Sortzen baino saltzen gehiago saiatuak izaten du gehienetan akatsik. Sortzaile entusiastak ez du, ordea, ikusiko. Balorazio oso positiboa egingo du beti hedabideen aurrean. Entusiastak badu beste ezaugarri bat arrisksutua: entusiasta gehiago biltzeko gaitasuna bere lanaz goza dezaten. Entusiasmoa jardueraren ardatz eta botere publikoak bertan goxo, horrela iritsi gara egungo kultur produkzioaren zati bat 'ikasturte amaierako jaialdien sindromeak' jota egotera. Beti oso ondo. Gureek egin dute eta asko saiatu dira"

(ANDONI EGAÑA, BERTSOLARIA)

"Badut lagun bat inoiz zera aitortu didana: beste behin jaio izatera, eta aukeratu ahal izatera, noski, bere hurrengo bizitzan gizon, heterosexual, zuri eta eskuinekoa izan nahiko lukeela. Ba nik nire hurrengo bizitzan elebakarra izan nahi dut, baina parte onekoa, mundutarrago egiten zaituenetakoa; zertan bidaiatu ez izateko; elebakarra, baina amona euskalduna izan omen zutenetakoa; elebakarra, agerikoaz zalantza gutxiago egiteko, iritzi irmoagoak izateko, xehetasunek hain erraz ez desbideratzeko; elebakar tarteka minbera, tarteka solidarioa, hori bai, inposaketarik gabe, konplexuak konplexurik gabe erakusteko"

(ANGEL ERRO, KAZETARIA)

"Orroaldi garaian gaude Gorbealdean. Aztoratuta dabilta Parke Naturaleko oreinak, eta bereziak dira gauak. Ibilgailuek parkerako sarbidea mugatuta dute. Animalia ederrak dira, zinez: buruko adar-kaiola ikusgarri horrekin bidea gurutzatzen trostan ikustea kontsolagarri zaigu. Baina inguruko baseritarrentzat arazo handia dira, soro eta baratzetan sekulako txikizioak egiten dituzte. Kontrolrik gabe hazi omen direlako azken hamarkadetan. Gainera, Gorbeia inguruetako jatorrizkoak XIX. mendean desagertu ziren. Gaur egungoak 1957an Toledotik eta 1981ean Cazorlatik ekarritakoen ondengoa dira"

(MANEX AGIRRE, KAZETARIA)



ENRIKE ZUAZUA

## Ez dago hitzik

Batzuetan ez dago sentimenduen neurriko hitzik. Bizitzaren goitik-beherakoak, batzuetan, gertakari bortitz bihurtzen dira. Eta, guztien artean, errebolta aldats gorenar norberaren haurrei azken agurra ematea da. Emakume eta gizonezkoak ez gaude horretarako prestatuta. Eta suertatzen denean ez dago hitzik. Maider joan zaigu eta den denok mutu geratu gara, zer esan jakin gabe, eztarria siku. Ez dago hitzik, ez; eta kontsolamendurik ere ez. Bakoitzaren esperientzia pertsonalak ez digu erakusten bizitzaren pasadizo hori nola igaro.

Ez dago bakardadean ez hitzik eta ez indarririk. Denok elkartu behar beraz ospakizun honetan, denen artean indarrak batuz, azken hitz horiek esateko gai izan gaitezen, letraz letra. Herri gisa ondo dakigu guzti hori alferrik ez dela. Nazio iraunkor guztiek, handiek eta txikiek, Maider bezalako heroiak, eredu gazteak behar dituzte. Horrek ez du senide eta lagunena mina arintzen, baina esperantza pizten du. Gazterik, gazteegi joan zaigu Maider, baina, bidea erakutsi digu hemen geratu garenoi. Berak hasitakoa geuri eta gugandik sortuko direnei eta gurekin trebatuko direnei dagokigu, dagokie burutzea. Nazio guztiek behar dute ohorezko zerrenda osotzea: legezkoa da, bidezkoa. Geurean, gaur, Maiderren izena kokatu behar dugu lekuri gorenearan. Etxean txikitat edan zuen jakin-minaren egarria. Arkitekturaren bidetik jo zuen berak, bikain, sorkuntza, ikerketa eta irakaskuntzaren bideak jorratuz, modu errepika ezinean. Ez dago hitzik gaur Maiderrek diseinatu eta sorturiko eraikinak, paisaiak, hiriak, hutsik geratu baitira, isilik. Inoiz ez gara gai izango berak barnean zeramana asmatzeko, gauzatzeko. Baina beraren izenean elkarrekin jarraitzeko atxikia badugu. Herri txikitu honek, gaur, agur egin behar dio bere alaba bikainenetako bati, eta egitean hitz zaharrak gogoratzeko aukera eta beharra du. Lepoan hartuta, iturri zaharretik beti ur berria edanda, herri gisa, aurrera jarraitu beharra dugu. Isilik, ez baitago hitzik. Gaur ahul, berriz ere etorkizunean sendo eta gogor izateko. Agurrik ez joan ez denarentzat, Maiderren eredu, adibidea gurekin geratzen baita. Maider, mugaz bestaldeko lagun berria... Berak piztutako argi dirdiratsua herri galdu honi bidea erakutsi diezaiola. Ez dago hitzik.

**OHARRA:** MAIDER ELIXABETE URIARTE IDIAZABALI LANKIDEAREN AZKEN AGURREAN IRAKURRITAKO HITZAK (2016/VIII/26)

## Pensiño duiñen aldeko siñadurak

Pensiño guztiak 1.080 eurora arte osatzia eta Gizarte Segurantzza propio bat eraikitze-ko urratsak emotia eskatu eben eguaztzen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako pensionisten plataformak (Arabako Pentsionista Lanean/ Duintasuna Elkarte/ Bizkaiko Pentsionistak Martxan) Gasteizen, Legebiltzarrian. Eskaera bixeri babesa emoten bildu dittuen 71.724 siñadurak eruan zittuen jubilauek eta proposamen bixak EAEko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eztabaidatzia eta onartzia eskatu eben atzera be. Siñadurak entregatiaz gain, aldarrikapen bixen aldeko alkarrataratzia be egin eben Legebiltzarraren aurrian.



*laguneri arreta egin detse uda honetan Debako Gurutze Gorrixan; kasu gehixenetan arazo arifnekin jua jakuez, 293 lagun hondarrazpikuak ziztatuta. Uda honetan 7 sokorristak jardun dabe biharrian, txandaka.*

## Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntzak

Udalak diruz lagunduko detse Diru-sarretarak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen daben famelixeri, euren seme-alabak Afariketant, Multikirolak eta Jazinto Olabeko ludotekan eskinduko diran jardueretan parte hartze-ko aukeria izateko. Diru-laguntza hórrek eskatzeko epia iraillaren 30era arte egongo da

zabalik eta diru-laguntza jasotzeko hainbat baldintza bete biharko dittue eskaeria egitten dabenak: Eibarren erroldatuta egotia, Diru-sarretarak Bermatzeko Errenta baten edo Diru-sarretarak Bermatzeko Laguntza baten titularra izatia eta 5-18 urte bittarteko adingaberen baten arduria izatia. Eskaeria eta aurkeztu bihar-



reko dokumentaziñua Pegorara eruan biharko dittue. Urte honetako udal aurrekontuan 20.000 euroko partida sartu eben horrelakueri aurre egittete, EH-Bilduren zuzenketa bateri jarraituta.

## Euskeraren Plan estrategikoa plenora

Asteleheneko plenuan Euskeraren Plan Estrategikoa onartzeko botaziñua egingo dabe eta, aurreikusitakua betez gero, talde guztien babesarekin aurrera egingo dau. Plan horretan 2016-2025 epealdirako erronkak, helburuak eta lehentasunak ezartzen ahalegindu dira. Udaletik azaldu dabenez, "plana ez da bakarrik udalarena izango, Eibarko hiriaren eta herritarren plana izatia nahi da" eta, bestiak beste, udalian dagua-

zen alderdi guztiak planarekin bat egin dabe, "babes osua emonda".

Eibarko Udalak 2016-2025 Euskararen Plan Estrategikoa prestatzen jardun dau eta, horretarako, parte hartzeko prozesua zabaldu eben 2015eko azaruan, 50 eibartar inguruk parte hartu eben Markeskuan egin zittuen pare bat saiotan. Horrekin batera herritar guztieri euren bizipen, iritziz eta ekarpenak egiteko aukeria zabaldu zetsen.

## Gaur hasiko dira jaixak Legarren

Legarreko jaixak ospatuko dittue asteburuan, programa bete-betiarekin. Gaur 19:30xetan botako dabe jaixen hasierako txupinazua eta, jarraixan, kalejira egingo dabe, trikitaliri eta buruhandixekin. 20:30xetan patata tortilla txapelketia hasiko da eta, ondoren, auzoko umiendako herri afarixa. Gabian, 22:00etan, umiendako ikuskizuna antolatu dabe eta, ondoren, musika eskinduko dabe txosnan.

Eta zapatuko programia aurten lehenengoz egingo dan ekitaldiak hasiko dau: 11:00etan Legarreko Kronoeskillaria hasiko da. Parte hartzera animatzen diranak San Juan kaletik (loradendian ondotik) hasi eta eskillara guztiak igo biharko dittue, txosnaraño. Adinka sailkatuko dabe probia eta parte hartzen daben guztiendako egongo da freskagarri eta pintxoren bat. Izen emotia txosnan bertan egin biharko da gaur arratsalde-illuntzixan. Gabera arteko ekitaldi guztiak agendan dakazuez.



Egitaraia betiagua egingo dau bixar 11:00etako Kronoeskillaria ekitaldi barrixak. Adinka jokatuko da proba hori. **Leire**

## autuan

### Afariketenerako matrikulia

Afariketan programan parte hartu nahi dabenak datorren astian, irailaren 26tik 30era bittartian emon biharko dabe izena, Indianokua gaztelekuuan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara; horrekin batera, irailaren 26 eta 27xan Arrateko Andra Mari ikastetxian eta Tiburtzio Anituako lokalian be egongo da aukeria, 16:00etatik 18:00etara; eta internet bidez be bete leike matrikulia, [www.astixa.eus](http://www.astixa.eus) web orrixan (irailaren 26tik 30era).

### Arratietako zozketa

Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaixetan saldutako errietako zozketan hōnek izan dira saritutako zenbakixak: lehen sarixa 1.932 zenbakixari egokitu jako (ordezkua 1.242) eta bigarrena, barriz, 1.884 zenbakixari (ordezkua 1.524). Sarixa jasotzeko azken eguna irailaren 30a izango da.

kolorlan@hotmail.com 667 54 89 16 (Ritxar)  
www.kolorlan.com

**KOLORLAN**  
P I N T U R A K

**San Andres**  
Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**FM** Funeraria·Ehortzetxe  
**Mugica**


**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean  
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra  
☎ 943 20 19 51 [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**



XABIER  
BADIOLA

## kale izena pertsonaiaren izana

**DANIEL ZULOAGA** (1852-1921) –Ignacio Zuloagaren osaba– zeramikagile ospetsua izan zen. Segovian zituen labeak. Ignacio Zuloaga hara joan zen bizi izatera eta urte batzuk han pasatu zituen. Garai hartako zeramikagintza berritzen pisu handi izan zuen Danielek. Nazioarte mailako erakusketa askotan hartu zuen parte eta, ondorioz, bere lanak Europa osoan banatuta daude.

Antzinako zeramika-teknikak berreskuratzen lan handia egin zuen eta, horretaz gain, European modan zeuden modernismoa eta neorrenazentismoa ezagutzera eman zituen.

Gaztetatik Erret Jauregian jardun duen lanean, eta Sèvres-ko (Frantzia) portzelana-eskolan ikasi ondoren, Moncloako Erret Fabrikako arduradun izendatu zuten.




**Dibujo Eskolarekin elkarlanean**

## Defibelen taillarra Elgoibarren

Defibel Debabarrenako Fibromialgia eta Astenia Kronikuaren Kontrako alkartiak "Zure burua kokatzen ikasten, bihur ezazu zure etxea etxebizitza bat" izenburuko taillarra antolatu dau Elgoibarren (Kultur Etxeko hitzaldi aretuan). Ana Perez Lizarraga psikologo eta psikoterapeutak gidatuko daben ikastarua datarren astian, irailaren 30ian hasiko da (17:00etatik




Ana Perez Lizarraga.



19:00etara) eta hurrengo barixakuetan izango dau jarraipena (urriak 28, azaruak 18 eta abenduak 16xan, beti ordutegi horretan). Parte hartu nahi dabenak izena emon biharko dau (plazak mugatuak dira). Informaziño gehixago eskatzeko zein izena emoteko 648 97 75 87 telefono zenbakira deittu.

irailak  
**25**



Eusko

Legebiltzarrerako

**HAUTESKUNDEAK**

[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



## Domekako hauteskunde jarraipena

Ohiko martxan, domekarako deittuta dagozen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundieri jarraipen berezixa egingo detsagu. Beste batzuetan bezala oinguan be ...eta kitto!-k lantalde zabala ipiñiko dau martxan, egunian bertan gertatzen diren guztien barri emoteko, domekan bertan internet bittartez (etakitto.eus webgunian, Facebook-en eta Twitterren, @etakitto kontuan, #i25 traola erabilita) eta astelehenian herriko 60 toki baiño gehixagotan duan banatuko dan hauteskundietako ale berezixekin. Ale horrek, Eibarko emaitzekin batera, gure herriko ordezkari politikuen inpresiñuak be jasoko dittu, botua emoteko orduan egindako galderen erantzunekin eta botuak kontatzen amaittuta, emaitzak jakin ostian egindako baloraziñuak be. Eibarren, beste herrixetan bezala, botua emoteko mahaixak 09.00etan zabaldu eta 20.00etan itxiko dittue.

**Maddalen Iriarte**  
Gipuzkoa

**Arnaldo Otegi**  
Lehendakariagaia

**Jasone Agirre**  
Bizkaia

**Miren Larrion**  
Araba



**HEMEN  
eta ORAIN  
DENON HERRIA**  
BOZKATU **ehbildu**

## Jabetze Eskolako ikastarauak

Udazkenerako lau ikastaro antolatu ditue Jabetze Eskolaren bittartez eta antolatzailliak "Lana aurkitzeko edo lanez aldatzeko trebetasunak" taillarrian oindiok be izena emoteko aukeria daguala gogorarazi nahi dabe. Gaiñera, taillar bat euskeraz izango da eta bestia, barriz, gazteleraz: "Taillarrak biharrerako jabetzen gaituen tresna eta abilezia personal, emozional eta sozialak eskinduko deskuz, erronka ezberdiñeri aurre egituko: lana aurkitu edo mantentzeko, dakagun biharra hobetzeko, autonomo bihurtzeko edo enpresa bat sortzeko".

Irakaslia Mertxe Arratibel izango da eta klasiak Andretxean emongo ditte

(euskeraz eguazten goizetan eta gazteleraz eguen arratsaldetan). Eibarrren erroldatuta daguazten andrak 15 euro ordaindu biharko dabe (bestiak 20 euro) eta matrikulia Pegoran edo Andretxean egin leike (NANaren fotokopixia eruanda). Izena emoteko epia urriaren 11n itxiko dabe. Eskintza biribiltzeko emongo dituen beste hiru ikastarauak hónek dira: "Osasuntailerra. Emakume gorputzean biziizatea", "Autodefentsa Feminista" eta "Hobeto bizi izateko aldaketak kudeatzen ikastea". Informaziño gehixagorako Andretxean galdetu (Zezenbide, 9), 943700828 telefonora deittu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi leike.



Andretxeako dinamizatzaillia ikastaruen barri emoten daben diptikuarekin.



## Energixari eskindutako azokia

Energixaren inguruko azokia hartu eban Untzagak aurreko asteburuan, barixakuan eta zapatuan, udalak antolatuta. Asmua energixa barriztagarrixen inguruko informaziñua ezagutzera emotia zan eta, horretarako, ikasliendako bisita gidatuak, hitzaldixak, umiendako taillarrak eta beste hainbat egin zittuen. Bestiak beste hainbat stand bisitatzeko aukeria egon zan (Eibarko Udalak, EHUK, Armerixa Eskoliak eta Usurbilgo Lanbide Eskoliak postua ipiñi eben), gasaren eta argindarraren inguruko zalantzak argitzeko aukeria emon zetsen jendiari eta nahi izan ebanak ibilgailu elektrixua probau eban.

J.A. MOGEL IKASTOLIAKO GURASOEN EIKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA EIKARTEA



autobus

Goizeko  
**09:00**etan  
 IRTENDA



8€

Arratsaldeko  
**19:30**ean  
 BUELTATZEKO

zerbitzua

*urriaren 2an*  
**KILOMETROAK**  
**Bergaran**

## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
 Orbeako dorreak / 1. solairua  
 ☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- |                          |  |
|--------------------------|--|
| 1) Kardiologia           | 11) Barne Medikuntza                     |
| 2) Zirugia               | 12) Radiologia                           |
| 3) Dermatologia          | 13) Urologia                             |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 14) Traumatologia                        |
| 5) Análisi Klinikoak     | 15) Koloproktologia                      |
| 6) Ortodontzia           | 16) Erizaintza                           |
| 7) Otorrinolaringologia  | 17) Zoru pelbikoaren<br>errehabilitazioa |
| 8) Pediatria             | 18) Foto-depilazio                       |
| 9) Psikiatria            | Unitatea                                 |
| 10) Neurologia           |  |

## Izen-ematea aurrera doa!

Eta martxa onean gainera. Aurreko asteko aurkezpenaren ondoren hasi dira parte-hartzaile berriak programara hurbiltzen: euskara praktikatzeko premia dutenak, euskaraz berba egiterako orduan konplexuak edo lotsa gainditu nahi dutenak, premia hori dutenei lagundu nahi dieten euskaldunak, euskaraz berba egiteko konpromisoa hartu duten talde naturalak, edo nahiz eta euskaraz jakin ez Ongi etorri Berbetan-era



harrera eta elkarbizitzarako programan izena eman nahi dutenak.

Izen-emate kanpaina bete-betean, egitarau zabalarekin ekin dio ikasturteari Berbetan programak. Aurreko barixakuan Berbetan Jaialdia egin zen Urkizuko eskolan eta bertaratu ziren ume eta gurasoek ez zuten aspertzeko denborarik izan. Etxeko txikienek eskulanak egin, puzgarrietan ibili eta Mugi Mugi disko festarekin dantza egiten zuten bitartean, ...eta kitto!-ko dinamizatzaileak gurasoengana jo zuten, programaren berri eman eta parte hartzera animatzeko.



## Magia auzoetan

...eta kitto!-ren erronketako bat, aurten, auzoetara jauzi egitea da, bertako bizilagunei Berbetan eta Ongi etorri Berbetan-era programen berri emateko. Aste honetan, eguaztenean, Txoborro magoa Urki auzoan egon zen bertako txikien gozamenerako.



Eta datorren astean ere beste horrenbeste egingo dugu.

Martitzenean, irailaren 27an, **Kidam magoa**ren bisita jasoko dugu, oraingoan Amaña auzoan, Torrekuako parke berrian, arratsaldeko 17:30etik aurrera.



Eta eguaztenean, irailaren 28an, **Tor magoak** ikuskizuna eskainiko du Urkizuko parkean, iturriaren aldean, ordu berean.



## Non eta nola eman izena

Berbetan-en mintzapraktika egiteko edo Ongi etorri Berbetan-en auzoetan bizilagun taldeak eta sareak osatu eta kultur aniztasuna ezagutzeko izena eman nahi dutenek hainbat bide dituzte horretarako. Berbetan-en kasuan ...eta kitto!tik bertatik pasa daiteke, telefonoz deitu (943200918), emaila idatzi (elkartea@etakitto.eus) edo web-orrian eman daiteke izena. Ongi etorriren kasuan, aurreko bide berberak erabiliz, ongietorri@etakitto.eus helbidean edo Udaleko Gizartekintza sailarekin harremanetan jarriz eman daiteke izena (943708440-immigrazioa@eibar.eus).

## Legarreko jaietan ere izena emateko aukera

Legarreko Jai Batzordearekin elkarlanean, auzo horretako jaietan ere izango dira ...eta kitto!-ko dinamizatzaileak hango bizilagunen artean informazioa banatzen. Umeentzat bi ikuskizun egongo dira: gaur, 22:00etan, "Non da elefante gorria?" antzezlanak.

Bihar, zapatua, "Trotamundis zirkoa" 17:00etan.



## PATXI LAZCANO AIZPURUAren

**1. URTEURRENA (2015-IX-23)**

**Beti gogoratuko dugu erakutsi zenigun ilusioa, bizipoza, eskuzabaltasuna eta prestutasuna.**

**ETXEKOAK**







**Bidebarrieta 198.000 €**  
Ezinhobea. Igogailua kaleraino. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea.



**Bidebarrieta 179.000 €tik**  
2 pisu altu. Konpontzeke: 179.000 euro. Apartekoa: 240.000 euro. Terrazarekin.



**Mekola Galdetu**  
"Milioidunen etxea". 2 etxebizitza konpontzeke. Etxebizitza bat berriztua. 160 m<sup>2</sup>. Garajea. Ganbara handia.



**Muzategi 285.000 €**  
Paregabea. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Garajea eta trasteroa.



**Ifarkale 155.000 €**  
Apartekoa. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua.



**Estaziño 155.000 €**  
93 m<sup>2</sup>. Ezinhobea. Igogailua eta kalefakzioa.



**T. Etxebarria Galdetu**  
146 m<sup>2</sup>. Pisu altua. Igogailua. 2 etxebizitza egiteko aukera.



**Ipuruako dorreak 220.000 €tik**  
3 logelako pisu altuak. 2 komun. Garaje eta trasteroarekin. Apartekoak, berriztuak eta berrizteke.



**Isasi 165.000 €**  
Pisu altua, balkoiarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



**Armagin 190.000 €**  
Apartekoa. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



**Urkizu 170.000 €**  
3 logelako etxebizitza polita eta apartekoa. 2 komun, sukaldea, egongela. Igogailua eta kalefakzioa.



**Mutiloa 140.000 €**  
3 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Igogailu publikoa pegoraraino.



**Romualdo Galdos 179.000 €**  
Ezinhobea. Azken pisua. 3 logela. Eguzkitsua. Igogailua kaleraino.



**Romualdo Galdos 195.000 €**  
3 logelako etxebizitza eroso. 2 komun, sukaldea, egongela. Ganbara. Igogailua kaleraino.



**Santainees 167.000 €**  
Apartekoa. Pisu altua. Oso eguzkitsua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua.



**San Kristobal 130.000 €**  
3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



**Sautxi 140.000 €**  
Paregabea. 2 logela. 2 komun, sukalde-egongela, 2 garaje eta trasteroa.



**Urkizuko dorreak 212.000 €**  
Erdi-konponduta. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. Terraza.




**Urkizu 215.000 €**  
Pisu altua. Bista ederrak. Apartekoa. 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela.



**Amañako dorreak 75.000 €**  
3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Balkoia. Igogailua.



**Untzaga 165.000 €**  
Estreinatzeko. Sukalde-jangela guztiz jantzia, 3 logela armairu enpotratuekin. 2 komun.



**Amaña 98.000 €**  
Bikaina. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi handiak.



**Zuloagarren 220.000 €tik**  
3 eta 4 logelako etxebizitzak. Konpontzeko.



**Txabola 115.000 €**  
Txabola salgai, lurrak eta guzti. Azitainetik Arraterako bidean.



Alokatutako lokal komertzialak salgai erdialdean. Errentagarritasun handiarekin.

Gaur arratsaldean, 19:00etan inauguratuko du Jose Zugasti artista eibartarrak erakusketa Portalean. "Biharra, arimakoa" izenburuko proiektuan Patxi Laskaray argazkilaria izan du bidelagun. Erakusketarako aretoa bere osotasunean erabili du artistak eta, ikusgai ipini dituen artelanei begiratuta, Zugastiren ibilbideari errepasoa emateko aukera bikaina izango dute bisitariak. Urriaren 16ra arte egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era. Erakusketarekin batera, horren osagarri gisa, datorren asterako, eguenerako hitzaldi-solasaldia prestatu dute erakusketa aretoan bertan, eskulturaren prozesuari buruz artistarekin berbetan jardun nahi duten guztientzat. Solasaldia 19:00etan hasiko da. Gaurko dena prestatzen aurkitu genuen Zugasti eta bere ahotik jaso genituen Portalean gaur zabalduko duen erakusketari buruzko azalpen guztiak.

**- Nolako erakusketarekin zatoz zure herrira?**

Izenburua "Biharra, arimakoa" ipini diot, txikitatik entzun dudana "biharra" berba hartuta eta, atzetik "arimakoa" gehituta, metafora modukoa planteatzeko asmoz. "Biharra" batetik lanaren adiera hori badu, baina badago ikusten ez den barruko beste bihar bat, asetzea eskatzen digun premia moduko bat. Gauza bi horiek izan ditut kontuan erakusketa hau prestatzeko orduan.

**- Eta hortik abiatuta, nolako artelaneekin osatu duzu erakusketa?**

Oso gazte nintzela, 17 urterekin joan nintzen Eibartik kanpora ikastera, baina hala ere betidanik sentitu izan dut oso lotura sendoa hemengo tailerretako giroarekin, estetika industrialarekin... Bila joan barik ere tailerrak, arkitektura industrial, mate-



**JOSE ZUGASTI (ESKULTOREA):**

**"Burdinak sentimenduak azaltzeko bidea eman dit"**


rialak... etenbarik nire lanetan irtetzen joan dira horiek eta erakusketa honetan horiek izango dira ardatza. Bestalde, nire lanekin batera nire obrarekin sentsibiltate handia duen Patxi Laskaray iparraldeko argazkilaria hainbat lan ere ikusgai ipini ditugu.

**- Batez ere eskultore moduan zara ezaguna, baina erakusketan sartu eta margolana aurkituko dugu beste ezer baino lehen...**

Bai, sarrerarako antzinako lan bat, 1982. urtean egindako koadroa aukeratu dut. Izan ere, margolari moduan hasi nintzen ni eta sasoi hartan margotutako koadroa horren aztarna modukoa da: margotutako figura desgastearen, materiaren demolizioaren metafora modukoa dela esan daiteke.

**- Eta zergatik egin zenuen eskulturara saltoa?**

Barruak eskatzen zidanari erantzuteko, margotutako koadroetatik kanpora ateratzeko beharra nuela sentitu nuen eta horretara ipini nintzen. Nire lehen burdina tailerra zuen aitan lagun batek, Albizurik eman zidan eta horrekin hasi nintzen lanean. Hasi burdinarekin lan egiteko teknikarik ez nuen ezagutzen, baina barruan sentitzen nuena adierazteko behar horrek bultzatuta, hori lantzeko moldatu nintzen. Gero, denborarekin, teknika ikasi eta lantzen joan nintzen. Nire kasuan, eskulturak sortzeko orduan, materiarekin betetzen joan baino gehiago, materia kentzen joatearen aldekoa izan naiz. Burdinak erabilia gizakiaren hauskortasuna, estabilitate eza eta beste sentimendu asko azalarazteko bidea aurkitzen joan naiz. Hemen dauden lanetako batzuetan, adibidez, materiaren hutsuneak pisua-



**JUAN LUIS  
Ulazia Landa**  
5. urteurrena (2011-IX-25)

**"Gure artean ez bazaude ere,  
GUREKIN zaitugu BETI"**

**ETXEOAK**



ren sentsazioa adierazten duela ikus daiteke, pisuaren forma falta den horretan antzeman daiteke. Tailerretako giroa, usaina, koloreak... erakusketan horiek guztiak biltzen ahalegindu naiz.

**- Eskultura handi asko sortu dituzu...**

Bai, nire lanaren zati handi bat obra publikoari eskaini diot. Eskulturaren eta ipiniko den tokiaren arteko lotura bilatzen ahalegindu naiz horrelakoetan. Adibidez, Bilboko Euskaldunan dagoen lanak toki horretan bizi izan ziren gatazkak, sufrimendua, mina... horiek guztiak transmititu nahi ditu, sasoi batean toki horretan bizi izan ziren sentimenduak aditzera ematen ahalegindu naiz.

**- Eibarren ere badago zure lan bat, "Formen dantza" eskultura, lehengo Kakalardokuan?**



2011n ipini zuten kalean Zugastiren "Formen dantza" eskultura, lehengo Kakalardokuan.

**men dantza" izeneko. Egogainen dagoen hori berezia da zuretzat? Zer sentitzen duzu Eibarrera etorri eta hori ikusten duzunean?**

Ba alde batetik harrotasun modukoa sentitzen dut, baina horrekin batera erantzukizun edo ardura modukoa. Jendeari gustatuko zaion ala ez, zer pentsatuko duen... kezka moduko hori ere sentitzen dut. Eskultura horrek luzaroan gordeta egon diren sentimendu asko azaleratzen ditu eta horrek beti eragiten dizu beldur modukoa. Bestalde, Eibartik kanpora horrenbeste urte eman eta gero, nahitaez beti dago idealizazioarako joera moduko bat; hemen geratu direnek ez daukaten bestelako begirada izaten da. Baina horrelakoak albo batera lagata, bada berezia, bai. Eibarren, toki horretan propio ipintzeko sortutako lana da: hor Kakalardokua egon zen, zubi estua egon zen, esaten dutenez kakalardoak handik pasatzen ziren eta eskulturarekin tokiak izan duen metamorfosia bera adierazi nahi izan dut, sasoi bateko zubia, kakalardo babeslea... eta arku-dantzarekin lotura ere badu. Erakusketan horretan oinarritutako konposizioa ikusteko aukera izango da.

**- Jendeak, orohar, zure artelanak ulertzen dituela uste duzu?**

Figuratiboak direnak ulertzeko arazorik ez da izaten; dena dela, lanen aldamenean azalpen didaktikoren bat egoteak beti laguntzen du. Baina ulertu baino gehiago, jendeak begiratu eta zer ikusten duen, horrek dauka garrantzia. Musikari, adibidez, ez diogu galdeztzen zer esan nahi duen, entzun eta nahikoa izaten da. Bestalde, artearen munduan "es-



Materia eta formarekin jokatzeko aukera eman dio eskulturak Zugastiri.

nobismo" asko dagoela uste dut. Norberak bere burua artistatzat izatea pretenziosoa dela pentsatzen dut. Potentzialki denak artistak garela uste dut nik, denok daukagulako barruko sentimendu horiek kanpora ateratzeko behar edo premia hori. Gero, hori lortzeko, motibazioa izatea beharrezkoa da.

**- Zertan zabilta orain?**

Ba osasun arazoak direla eta, eskulturak egiteari laga behar izan nion 2011n. Gauzak horrela, nire hastapenetara buelta egin dut eta berriz margotzen hasi naiz. Papel gainean akrilikoak margotzen ditut orain. Barruko beharrak asetzeko formula moduko bat aurkitu dut eta horretan nabil orain, nire bideari jarraituta.



**I R A I L A**

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30			

**U R R I A**

					1	2	
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28	29	30	
31							

**A Z A R O A**

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30					

**A B E N D U A**

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	
19	20	21	22	23	24	25	
26	27	28	29	30	31		



2 0 1 6 k o  
 iraila-abendua

**kultur  
 eskaintza**



Euskara Elkartea

Urkizu pasealekua 11, solairuartera  
 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
 Tel: 943 20 09 18  
 elkartea@etakitto.eus  
 www.etakitto.eus

Barixakuero: ...eta kitto! astekaria  
 Hilero Txikitto! umeen aldizkaria  
 Astero Berbetan mintzapraktika taldeak  
 Itzulpenak eta diseinu-lanak

...eta kitto! Euskara Elkartea

Ikasturte berriak oporrak atzean laga eta ohikora itzultzeak dakar. Ohikora... edo akaso ez hain ohikora! Aurretik ere kirola egiten (batzuk gogorrago, beste batzuk arinago) ohituta dauden bitartean, badirelako kirol jardun horiek baztertuta dituztenak eta berreskuratu nahiko lituzketenak. Ikasturte hasierako asmo onetik haratago joateko intentzioarekin, gainera! Horretara animatzen gaituzte Eibarko Udal Kirol Patronatuak kaleratu berri duen 2016-2017 Gidak eta, baita, gimnasio pribatuek egindako eskaintzak.



## Kirola egiten hasteko une aproposena

Udal Kirol Patronatuak Ipuruan, Orbean eta Unben ditu instalazioak, Astelena frontoiarekin batera. Patronatuak ia 10.000 bezero edo erabiltzaile ditu gaur egun eta "horiek eskatzen edo duten zerbitzuei erantzuteaz gain, badira beste modalitate batzuk euren kabuz sortzen dituztenak, osasun aholkuei jarraituz askotan. Beti ere zerbitzu onena eskaintzeko asmoz". Ohikoa denez, urtero zozter berria eskaintzen ahalegintzen dira eta aurten arlo horretan Hipopresiboak, Fit Dantza, Kirol-Barixakuak, Seniorren Kirola eta K-Stretch ikastaroak ezarri dituzte.

Badira, gainera, ekimen berrien artean, "ate irekiek eskaintzen duten aukera: hor jendeak kirol berriak probatzeko aukera du, inolako konpromisorik gabe", Kirol Patronatetik diotenez. Familientzako eta norbanakentzako aukera desberdinak daude, gainera, eta kuoten eta abonuen prezioak "ez dira igo 2014tik hona".

Helduentzako aktibitateen artean, Gorputz+Gogoia atalean Marc Pilates, Erlaxazioa eta Yoga Integratua eskaintzen dituzte Ipuruan eta Marc Pilatez eta Estudio Pilates Orbean; Koreografiak atalean Dantza eta Zunba toki bietan eta baita Fit Dance

ere Ipuruan; Tonifikazioa eta Kardio atalean Fitness, Just Pump, Spinning, Aerobic, 1 2 3 Forman eta Mantenimendua eskaintzen dituzte Ipuruan eta Integral Fit, G.A.P. eta Bossu Orbean; Osasuna atalean Kirol Egokitua eta Hipopresiboak dira eskaintzen diren zerbitzuak; eta Kirolak atalean Karatea, Kirol-Barixakuak eta K-Stretch; eta, azkenik, Nagusien atalean Fitness Senior, +60 +70, Intentsitate Baxukoa, Kirol-Barixakuak eta Gimnasia Siletan dira antolatutako programak. Haurrentzako aktibitateei dagokionez, Karatea, Erritmo Dantza eta Dantza Txikia eskaintzen

### IRAILA

#### **Irailak 23, barixakua:**

"Non da elefante gorria?" antzezlan, Legarreko Jai Batzordea. 22:00etan Legarren.

#### **Irailak 24, zapatua:**

"Trotamundis zirkoa" antzezlan, Legarreko Jai Batzordea. 17:00etan Legarren.

#### **Irailak 27, martitzena:**

Kidam magoa Amañan (Torrekuako parkean) 17:30ean.

#### **Irailak 28, eguaztena:**

Tor magoa Urkizuko parkean 17:30ean.

### URRIA

#### **Urriak 1, zapatua:**

Sagardo Eguna. Egun osoko jai Untzagan. 13 sagardotegitako sagardoak. 12:00-14:30 eta 19:00-amaitu arte.

#### **Urriak 2, domeka:**

Kilometroak-era autobusak (Bergara). Irteera Ego Gainetik 09:30ean eta itzulera 19:30ean. 8 euro.

#### **Urriaren 3tik azaroaren 7ra arte:**

San Andres Bertso Paper lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

#### **Urriak 4, martitzena:**

Harixa Emoten. Anjel Lertxundiren "Zu" liburua. 19:00etan Portaleko ikastaro gelan.

#### **Urriak 16, domeka:**

Nafarroa Oinez-era autobusak (Viana-Lodosa). Irteera Ego Gainetik 08:00etan eta itzulera 18:30ean. 12 euro.

#### **Urriak 19,**

#### **eguaztena:**

Tomate-dastaketa saioa, Ortutik ahora elkartearen eskutik.

19:00etatik aurrera ...etakitto!-n.

#### **Urriak 21, barixakua:**

Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian". 17:30ean ...eta kitto!-n.

#### **Urriak 25, martitzena:**

Karmelo Ayestaren hitzaldia, "Euskaldun baten hizkuntza bidaia". 19:00etan ...eta kitto!-n.



### AZAROA

#### **Azaroak 2, 9, 16 (eguztenak):**

Gurasoak Berbetan "Hamarretako osasuntsuak", Zalaa Otaduyekin. 19:00etan Portaleko sukaldian.

#### **Azaroak 8, martitzena:**

Harixa Emoten, Asier Serranoren "Ate osteko itzalak eta linbotarrak" liburua. 19:00etan Portaleko ikastaro gelan.

#### **Azaroak 12 eta**

#### **13, zapatua eta**

#### **domeka:**

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Unibertsitate Laboralean.

#### **Azaroak 13, domeka:**

Bizilagunak bazkaria, Ongi etorri Berbetan-era programaren barruan.

#### **Azaroak 15, martitzena:**

"Lore-dastaketa" saioa. 19:00etan ...eta kitto!-n.

#### **Azaroak 18, barixakua:**

Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian". 17:30ean ...eta kitto!-n.



#### **Azaroak 27, domeka:**

San Andres Bertso Jaialdia. 19:00etan Portaleko areto nagusian.

### ABENDUA

#### **Abenduak 3, zapatua:**

Euskararen Eguna.

#### **Abenduak 6, martitzena:**

Mirandaolako Olenzeroren etxera bisita, berbalagunekin.



#### **Abenduak 13, martitzena.**

Harixa Emoten, Joxemari Iturraldearen "Perlak, kolpeak, musuak, traizioak" liburua. 19:00etan Portaleko ikastaro gelan.

#### **Abenduak 20, martitzena:**

"Sexijentziak" bakarriketa (Itziar Saenz de Oier), Arrate Kultur Elkartean, 19:00etan.

#### **Abenduak 31, zapatua:**

Kirolkitto! kirol sari-banaketa. 12:00etan Coliseoan.

dituzte kiroldegi bietan eta, horrez gain, Karatea lpuruan.

Ur-aktibitateek, bestalde, garrantzi eta pisu handia dute aipatutako eskaintzaren barruan. Horrela, ohiko ikastaroak eskaintzen jarraitzen dituzte helduentzako aktibitateen barruan: Igeriketa atalean, Hastapena, Oinarrikoa eta Aurreratua instalazio bietan eta Masterra, Pertsonalizatua, Egokitua eta Filmazio Akuatikoa lpuruan; Tonifikazioa eta Kardioaren atalean, Running-Pilates lpuruan, Acuarunning Orbean eta Acuafitness bietan; eta Osasuna atalean, Acuasalud eta Acuaespalda Orbean zein lpuruan. Eta haurrentzako aktibitatei dagokionez, Ahatea, Dordoka; Olagarroa, Itsas Zaldia, Igela, Izurdea eta Marrazoa mailekin batera, badago tartea ere igeriketa egokiarentzat.

Aurrez aipatutako edozein ikastaroetan izena emateko 943 20 32 40 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, [www.eibarkiro-la.com](http://www.eibarkiro-la.com) helbidera jo.

#### Aukera gero eta zabalagoa

Kirol zentru pribatuen artean, Calbeton kalean dagoen Ugan Klubean hainbat modalitate eskaintzen dira: Fitness, bakoitzari egokitutako egitarauekin, Pilates Metodoa, Crossfit, Bossu, Zunba, Clico-indoor, Aerobic, Hip-hop, Aeroboxing, G.A.P, Power dumbell, Kickboxing, Mantenimendurako Gimnasia, Yoga, Erditze aurreko eta osteo Gimnasia, eta umeendako urari egokitzea eta igeriketa ikastaroak, Taekwondo Txikia eta Umeendako Aerobic eta Psiko-motrizitateekin batera.

Estetika eta osasuna lantzerako egokitutako zentro horrek, fisioterapia zerbitzua eta umeendako aktibitateekin batera, kirol medikuntza, dietetika eta estetika zerbitzuak ere eskaintzen ditu, "eta baita sauna, solariuma eta hidromasajea ere". Berritasunen artean, gimnasia abdominal hipopresiboa dago, "as-telehen eta eguaztenetan ematen dena. Eta, ekintza berrien artean, Jumpift eta TRX eta Spinning gela berritua daude".

Prezioari dagokionez, tarifa plana eskaintzen dute hilean 60 euro ordainduta eta gim-



*Gero eta modalitate gehiagotan jarduteko aukera izaten da instalazio publiko zein pribatuetan.*



nasioa erabiltzeko 50 euro ordaindu behar da hilean. Matrikula 50 eurotan dago, esfortzu proba barne, eta ur-jardueren prezioa ere 50 eurokoa da hilean.

Badira Eibarren beste zenbait gimnasio ere: Adhara Zentroa, Juanito Gimnasioa, IfarSport Gym, Kenko Gimnasioa, Ttatt Gimnasioa... aukera bikaina eskaintzen dutenak gorputza zaindu eta osasuntsuago bizitzeko. Eibar Sport-ek coach edo kirol-prestatzaile zerbitzua eskaintzen du eta Yoga Irune-n erlaxatzeko teknikak erakusten dira.



[abbiewhiteenglish@gmail.com](mailto:abbiewhiteenglish@gmail.com)

943203197

BISTA EDER 7 BEHEA - EIBAR

**Amaia Rodriguez (boluntarioa)**

## "Errefuxiatu gazteek ikasteko gogo handia dute"

Amaia Rodriguez 24 urteko eibartarra Grezian egon da abuztuan, astebete errefuxiatuei ingeles eskolak ematen. Gazteen ikasteko gogo handia dela baina helduen esperantza gainbeheran dagoela azpimarratu du handik bueltatzean. Itzulpengintza ikasi zuen Gasteizen eta ondoren irakasle izateko masterra egin zuen. Orain bulego batean lan egiten duen arren, denbora librean Kezka dantza taldeko dantzaria da.



### - Nola erabaki zenuen Greziara joatea?

Etorkinen gaia eta bereziki errefuxiatuena beldanik interesatu zaizkit. Hurbilekoa sentitu dut eta jasotzen genituen albisteek bertakoen egoera benetan onartezina zela erakusten ziguten. Batez ere Europak Turkiarekin sinatutako akordioak bultzatu gintuen nire bikotekidea eta biok hara joatera. Neurri handi batean, gure izenean hartutako erabakia ere bazela sentitzen genuen eta zerbait egiteko beharra sortu zitzaigun. Oso bidegabea da nola tratatzen dituzten gerratik datozen pertsona horiek.

### - Nola egin duzue bidaia?

Gobernuz Kanpoko Erakundeek normalean,

gutxienez 2 astetarako doan jendea behar izaten dute eta guk, geure egoera pertsonala dela eta, astebeteko tarte geneukan bakarrik. Horrela, boluntario talde independente batekin jarri ginen harremanetan. Atenas kanpoaldeko kanpamentu batean aritzen ziren umeekin ekin tzak egiten eta nerabeei ingelesa irakasten. Eta horrela abiatu ginen, behintzat aste batez gure laguntza eskaintzeko, izan ere, bertan zeuden boluntarioak alde egin behar zuten eta horrela proiektuari jarraipena eman genion. Abuztuan, bueltan ekarri behar ez zen maleta bat ere eramateko aukera izan genuen eta jendeak emandako erropaz eta, Elgoibarko denda batek emandako eskolako materialez bete genuen. Sentsibilizazio maila handia dagoela ikusi dugu, jendeak laguntzeko gogo handia du.

### - Zein egoera dago bertan?

Batez ere etsipena eta haserre dira nagusi. Jende heldua esperantza galtzen ari da, baina gazteek bestalde esperantza horri eustsi egiten diote eta ikasteko gogo handia dute. Oso haserre daude alde batetik Europako instituzioek duten jarrerarekin eta, bestalde, oso eskertuta eta pozik europar boluntarioen jardunarekin. Niretzat personalki oso esperientzia aberasgarria izan da baina joan nintzenean baino haserreago bueltatu naiz; ulertezina da egoeraren larritasunaren aurrean ezer egiten ez dela ikustea. Dena dela, denbora izanez gero bueltatuko nintzateke eta denbora duen edozeini gomendatzen diot hara joatea, laguntza behar dutelako.



## Leire De los Toyos Ibarrola (2016-IX-9)

**Eskerrak, hutsa beroz bete digutenei.  
Eskerrak, mina musukatzeagatik.  
Eskerrak zuri, betirako maitatuari,  
zure izana oparitzeagatik.**

ETXEKOAK

# BELDUR BARIK Lehiaketa 2016 abian

**Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketa irailean abiarazi dute**, orain dela aste pare bat Berangoko UK Skatepark-ean egindako ekitaldiarekin: "lanire Elorriagak ikastaro ederra eskaini zigun eta han ibili ginen berarekin maldan behera, gorputza nola jarri behar genuen ikasiz, gure oinak skate-aren gainean ondo jarriz, nola erori behar genuen ere irakatsi zigun! Erori eta altxatu! Skate-ean ibili eta gozatu! Pistak neskez betetzen! Kaleak, gauak, jaiak eta pista geureak ere direlako!". Horrekin batera, gerturatu ziren neskekin hausnarketa

egin zuten eta, besteak beste, skate munduan ematen diren indarkeria sinbolikoen inguruan jardun zuten.

Bestalde, lehiaketari buruzko informazio guztia beldurbarik.org atarian aurkituko duzue. Informazioa lortzeko bide bi daude: goiko partean, "Lehiaketa" atalean, "Lehiaketa 2016" aurkituko duzue eta, horren barruan, hainbat atal daude ikusgai: "Lanak 2016" (hemen aurten aurkeztutako lan guztiak izango dituzue, herri-saria bozkaketa irakitzeko denentzako lan guztiak ikusteko), "Argibideak" (lehiaketa parte hartzeko argibide guztiak



eta "Lehiaketa lokalak" (Eibarko lehiaketaren inguruko informazioa begiratzeko). Eta, horrekin batera, "Bete beharrekoak" atalean ere lehiaketa parte har-

tzeko bete beharreko baldintza guztiak aurkituko dituzue. Bari-xakuero lehiaketaren inguruko informazio gehiago ematen jongo dira, beraz adi egon!

## Nola lortu dezaket begirale titulua?

Udan gazte eta umeentzat aisialdi eskaintza zabala izaten da toki guztietan eta gero eta ohikoagoa da begiraleek lagundutako taldeak herrietako kaleetan, igerilekuetan, parkeetan... ikustea. Horrelakoak ikusita, seguruenik bati baino gehiago sortu zaio honako galdera: "Begirale titulua atera nahi dut, baina non bila dezaket?".

Ba lan hori errazteko Gazteakera webgunean (gazteakera.euskadi.eus) horri buruzko informazio zabala bildu dute eta, besteak beste, aisialdirako eskolak, haien datuak eta ikastaroak esku-eskura ipini dituzte. Ikastaro horiek guztiek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila-

ren babes ofiziala dute eta onartutako eskoletan antolatutako ikastaroak gainditu dituztenei, monitore, zuzendari edo dinamizatzaile diploma ematen zaie. Bestalde, aisialdirako heziketaren inguruan izan daitezkeen zalantzak argitzeko, "ohiko galderak" atala oso lagungarria da. Horrez gain, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan dagoen Aisialdi Foroan hainbat aisialdi-eskolek eta federaziok hartzen du parte, eta ikastaroen bilatzailea dute. Bilatzailearen bidez norberak bere intereseko ikastaroa, iraupena, hizkuntza eta lurraldea aukeratu ditzake. Informazio gehiagorako "Aisialdirako Heziketa" atala begiratu dezakezue, Gazteakera atarian.

## Gestoria Alonso

618 25 93 44  
943 20 20 17
San Agustín, 5 - behea  
mcalonsoeibar@gestores.net

## 2016/17 EUSKARA IKASTAROAK

# matrikula zabalik

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**  
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**  
(AURREZ AURREKOA)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

**ON LINE**

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

**eibar@aek.eus**

*Udalaren laguntzaz  
BEKA SISTEMA*

**Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379**

# + osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

 Clinicas dentales UniverSal

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - Esk. Telf: 943 20 18 51

**IRAZABAL**  
clínica dental

Irribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

**bista eder**  
clínica dental - hortz klinika

**Asko dira**  
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE  
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

Hobeto zure irudia, osasunean irabazi



**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - Telf.-Fax: 943 206 044  
www.clinica-abontza.com

**EIBAR** HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
Tlf: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...**  
**... deitu 943-206776 telefono zenbakira**



## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

**Degluzio atipikoa**      **Arreta arazoak**  
**Disfonia**              **Berba arazoak**  
**Ikaste-arazoak**        **Dislexia**

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

 **ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

## Psikologoak

 **AMETS**  
**PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA**

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

**Tel. 675 70 68 07**

**Maialen Hernandez**  
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

**Tel. 605 75 75 06**

## Okulistikak

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
**ARRATSALDEZ**

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

 **Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

 BIDEBARRIETA, 48  
**EIBAR**  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **SEXOLOGIA ZENTROA**

**Arantza Alvarez**  
**Psikologoa-Sexologoa**  
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com  
Tfnoa. 645 73 23 88

**KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia**

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Dislexiak
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27


 **Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

**• Katarata ebakuntzak**  
**(lente multifokalarekin)**

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



 **PODOLOGOA**

**Maidor Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

**Calbeton, 4 - 2.**  
**(Untzagako dorrea)**

**Tel. 943 20 86 41**

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**

 **Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023


## Roald Dahl idazle galestarra jaio zela 100 urte

**Roald Dahl** eleberri eta ipuin laburren idazle galestarra izan zen, norvegiar jatorrikoa. Arrakastaz idatzi zuen umeentzako zein helduentzako. Haren liburu famatuenetako batzuk: *Charlie eta txokolate-lantegia*, *James eta melokotoi erraldoia*, *Matilda*, *Sorginak*, *Erraldoi on miragarria* eta *Kiss Kiss*.

Bibliografia oparoa eta aberatsa utzi zuen Dahlek, batez ere haur eta gazte literaturan eta horietako liburu batzuk zinemara ere iritsi dira.

*Behinola* aldizkariko azken alean horrela deskribatzen dute haren obra: "Dahlen istorioak ez dira ohikoak:

*ironia handiarekin idatzi ohi zuen, istorio gehienetan haurrak dira protagonista, heldu arduragabe edo autoritarioz ingurututako haurrak; ezusteko amaiekin bukatzen dira bere liburuak eta irudimen handiko kontakizunak dira, pertsonaia eta ego-*



# Liburuak



eva alberdi  
—UDAL LIBURUTEGIA—

*era bitxiz betetakoak (sorginak, erraldoiak, fantasiaz betetako lurraldeak, magia...)"* Niretzat pertsonaia kuttunena **Matilda** da. Haren familia ez da batere eredugarria: aita iruzurgile hutsa, ama telebista zalea... eta Matildari **irakurtzea debekatzen diote!** Hau da, gaur eguneko haur eta gazte literaturan "**politikoki ez zuzena**" sailkatuko litzateke obra. Debeku hau izanda ere, Matildak eskolako liburutegiko liburu guztiak irakurtzen ditu ezkutuan bibliotekariaren harridurarako, eta bere arazoei aurre eginik eta gurasoak alde batera utzita, bere andereñoarekin bizitzera joaten da. Liburu hori eta beste batzuk irakurtzera animatzen zaituztet, ume eta gaztetxo eibartarrak. Pasatu zaitezte Umeen liburutegitik eta kuxkuxeatu bertan haren ohorez jarri dugun interesgunean.



## Musika

iñaki  
zubillaga

1978an, Oñatira joan nintzenean goi mailako ikasketak hastera, topatu nuen fenomeno ezezaguna: **Eganzaleak**. Astero komentatzen zen gelan non zeuden berbenak, eta Egan-ek non jotzen zuen... Eta hori bai erromesaldi asteburuero!!! Eta ze arraio eskaintzen zuten musikari horiek?

1970an lau lagun eraiki zuten proiektu berri bat: jai giroa eramateko herriz herri musitaren bidez... euskeraz (???). Garai horretan nobedadea.

Experientzia horretatik Xabier Saldias Orbegozo nabarmentzen zan, 'showman' bat. Denborarekin berak eutsi dio proiektuari laguntzaile batzuekin. Datorren hilean tokatzen zaio jubilatzea, hori da bere asmoa. Baina eskaerak ez dira falta taldea eszenatiketan segitzeko.



## Gauza zaharrak

Beatles, John Dever, Queen... eta beste horrenbeste taldeetatik euskeratu zituzten abestiak. Emaizta musikalak aparte beraiek izan ziren pioneroak. Bisitatu bere weborria egantaldea.com eta entzun abestiak.

Gaur dauzkagun musika aukerak hazi hauetatik irten dira.



**Bestaldetik bihar larunbatan ospatzen da Pub Scorpioko 30. urteurrena. Rioja familiako taberna urtian zehar bihurtu da Ermua eta inguruko 'Metal' leku nabarmena.**

**Jesus eta Juncalek hasitako proiektua Anur, Asier eta Josuk mantentzen dute, 'heavy metal'ko inspirazioarekin. Bihar, egun guztian kriston giroa egongo da Scorpioko patioan: opariak, zozketak, Eibar eta Errealaren arteko partidua ikusteko aukera,...**

**Iluntzean Ermuko rock taldeen bitartez metal abesti klasikoak entzuteko aukera izango da. Hortik aurrera...**



Leire Gandiaga Aldatze ikastetxeko ingeles irakasleak urteak daramatza Egoaziarekin kolaboratzen. Uda honetan, 9 urte eta gero, Perura bueltatzeko aukera izan du. 2007an, Eibarko Udalak emandako elkartasun bekari esker, bi hilabete eman zituen Alto Trujillon kooperazio lanetan, Lorea Charolarekin batera. Oraingoan, berriz, Egoaziako Gloria Mora eta Aldatze ikastetxeko Marixabel Albizurekin joan da, han martxan dauden hainbat proiekturen jarraipena egitera. Egoazia Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Aldatze ikastetxeak Perun martxan dauden hainbat proiektutan parte hartzen eta laguntzen dute, Fe y Alegria eta CIPCArekin batera.

## **LEIRE GANDIAGA (KOOPERANTEA):**

# **“Gauzak ondo formulatzen badira onurak pertsona askorentzat dira”**

**- Uztailen 10 egun eman zenituzten Perun proiektu desberdinen jarraipena eginen. Nola joan dira gauzak?**

Marixabel eta Gloria urtero joaten dira baina niretzako esperientzia berria eta oso ona izan da. Alde batetik bestera ibili gara. 6 proiektu desberdin izan dira, Udalak, Diputazioak eta Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak lagundutakoak. 10 egunetan informazio asko jaso dugu eta oso pozik etorri gara proiektu gehienek urteak daramatzatelako eta biden onean doazela ikusi dugulako. Inportantea da bertara joatea gauzak nola dauden ikusteko, eta aurrez aurrez egotea, esate baterako, emakume ekintzaileekin edo kakao ekoizleekin. Oso atsegina izan da entzutea euren seme-alabentzako hezkuntza on bat nahi dutela, gizonak onartzen dutela emakumeekin izan duten harreman hori ez dela egokia izan.... Informazio pila bat izan da. Dena oso programatuta eta lotuta eraman genuen, leku guztietara ailegatzeko. Urteak daramatzat kooperazio munduan baina bidai honetan ikasi dut lankidetzarena benetan engranaje handia dela. Gauzak ondo formulatzen badira onurak pertsona askorentzat dira. Proiektuetan gauza asko hartu behar dira kontuan eta dena ondo artikulatu behar da. Gauza asko ikutzen dira eta ondo trebatuta dagoen jendea behar da han ere. Hango teknikoak benetan zoragarriak eta jatorrak dira, injenieroak, psikologoak, hezitzaileak... Gau eta egun han daude, eta erabat konprometituta daude.

**- Nondik nora ibili zarete?**

Lehenengo Limatik hegoaldera joan ginen abioiez, Cuzco aldera, Fe y Alegriarekin batera. Bertan “nekazal eskolen sarea” proiektua dago martxan. 11 eskola batzen dituen proiektua da, Andeetako Quispichanin. Han “todoterrenoan” mugitzen ginen. Haur horien ama-hizkuntza quechua da, baina gaztelania ere ikasi egin behar dute, eskolak eta sistemak horrela behartuta. Hizkuntza “inposaketa” horrek komunikazio arazoak dakartza eta, nahiz eta bertakoak eurak izan, alboratuta bezala daude. Nahiko autoestima baxua daukate, batez ere neskek. Quechuan bakarrik hiru bokal dituzte eta gauza asko ez dituzte ondo ahoskatzen. Proiektuarekin poemak errezitatu egiten dituzte (beraiek “declamación” deitzen diote), quechua eta gaztelaniaz. Ariketa asko egiten dira hizkuntza arazoak konpontzeko, guztia modu ludiko eta atseginean, Fe y Alegriak jarritako teknikoekin laguntzarekin. Eskolara joatea da haur hauek daukaten altxorrik handiena. Proiektu horren helburuak emakumezkoak indarra hartzea, identitate kulturala lantzea eta euren autoestima gartztea da, eta zeregin honetan garrantzitsua da euren irakasleen inplikazioa eta konpromisoa lortzea.

**- Eta Peruko hegoaldeko iparraldera, ia Ekuadoreraino...**

Bai, Piurara joan ginen gero, iparraldera, berriro abioiez, CIPCAren 5 proiekturen jarraipena egiteko. CIPCA nekazalgoaren

garapenerako eta ikerketarako erakundeak da eta 44 urte daramatza Piuran lanean. Egoaziak CIPCArekin kolaboratzen du garapen ekonomiko eta soziala suspertzea helburu duten hainbat proiektutan. Santa Catalina de Mossan, gazta eta beste produktu batzuen komertzializazioaren bitartez, tokiko garapen ekonomikoa sustatzeko egiten duten lana ikusi genuen. Eibarko Udalak sei urtetan lagundu izan du eskualde horretan. Beste proiektu bat 0 eta 5 urte bitarteko haurren osasuna eta zaintzarekin lotuta dago. Beste proiektu batzuk saneamentua edo udal gestioaren indartzea eta gobernagarritasun demokratikoa zuten ardatz bezala.

**- Nolako egoera bizi dute nekazari eremuetako emakumeek?**

“Banquitos comunales” proiektuko emakume ekintzaileekin egoteko aukera ere izan genuen. Bazkideak izaten dira eta gauza desberdinak egiten dituzte, batek janari-denda bat zeukan, beste batzuk zumezko saskitxoak egiten zituzten, edo lorontziak... Erakutsi eta aholkatu egiten zaie, guztia komertzializatzen begira. Oso langileak dira, gaitasun handia daukate baina eskola gutxi, eta ez da erreza. Gizartea oso matxista da eta emakume gogorak eta ausartak dira. Oso zaila zen beraiei entzutean negar ez egitea. Peruko egonaldietan asko ikasi dut. Ez daukate ia ezer eta irribarrea denbora guztian aurpegian. Gauza gutxirekin zoriontsu izateko ahalmena daukate.



## Bera Bera nagusitu zitzaion Avia Eibar Rugby Taldeari

Anoetako zelaian jokaturako ligako lehenengo partiduan, Bera Berak 38-5 irabazi zien eibartarrei. Zapaturako eguna ez zen modu onean hasi eta, zelaira irten aurretik, Lazkanok eta Bergarak min hartu zuten beroketa saioan. Horrek ahalegin handiagoa eskatu zien eibartarrei. Lehen zatian 24-5 alde hartu zuten donostiarrek eta bigarrenean, Avia Eibarkoek gogor lehiatu bazuten ere, amore eman behar

izan zuten ikusita Bera Berakoek beste bi entsegu gautzen zituztela.

Ez Dok Eibar Rugby Taldeko neskek, bestalde, lagunartekoa jokatu zuten domekan Urbietako zelaian, Gernika eta Gaztedi taldeen aurkako triangularrean. Zenbait entsegu lortzeaz gain, gernikarrak garaitzea ere lortu zuten. Denboraldi hasiera bikaina izan zen aurten zelairuko duten talde gaztearentzat.




## Hasteko berdinketa areto foballean

Concepto Egilek Donostian bilatuko du lehen garaipena domeka eguerdian (12:00etan bertako Inter izango du aurkari), liga hasieran etxean berdindu eta gero. IMH-n jokaturako partiduan 3-1 aurretik joan ziren Debabarrenekoak, baina ez zuten jakin alde horri eusten eta Zaragozako Nuestra Señora del Portalek berdintzea lortu zuen. Atsedendira 2-1eko emaitzarekin joan ziren taldeak eta Montxo -birekin- eta Marcos izan ziren Concepto Egileren goletzaileak.

## Pello Osoro triatloietan garaipenak pilotzen

Ez du amaierarik Delteco Eibar Triatloi Taldeko ordezkariaren sasoi onak eta hilabete loriatsua dihardu osatzen eibartarrak. Zumaiaiko triatloia irabazi eta Sestaon bigarren izan ondoren, aurreko asteburuan nagusitasun osoz irabazi zuen Castroko triatloia.



## Manu Agirre judoka, Eibarko enbaxadore Tokion

Tokio 2016ko udako ikastaroan izan da Kalamua klubeko Manu Agirre, bertan parte hartu duten ekialdeko kiroletan saiatutako beste hainbat ordezkariarekin batera, aukeratutako talde handia benetan. Estatuko lehena izan da Agirre 9. Dan mailako diploma jasotzen, Karuki Uemura Kodokan-eko presidentearen eskutik. Manuk ez zuen galdu au-

kera Londreseko Jokoetan urrekoa eta Riokoetan brontzekoa bereganatu zituen Kaori Matsumoto judoka handiarekin argazkia ateratzeko. Hori bai, berak ere -Eibarko enbaxadore lanetan- Eibar FT-ko kamiseta batzuk eta banderina eman zion Robert Verdier Eibar FT-k Tokion duen peñaren presidenteari, Eibarko Udalaren pin batzuekin batera.



## JOSE LASKURAIN LARRAÑAGA

*1. urteurrena (2015-IX-22)*

*“Urak dakarrena urak daroa,  
zuk emandakoa gurekin geratzen da”*





## Sailkapenean berdinduta ekingo diote bihar Eibar eta Realak Ipurukoari

Martitzenean Malagan galdu eta gero, Mendilbarren mutilek argi dute aurreko denboraldietako bidetik jo behar dutela biharko hiru puntuak bereganatzeko. Puntu garrantzitsuak izango dira jokoan bihar 13:00etan eta, orain arte 1. mailan Ipuruan jokaturako derbi bietan bezala, Realari irabazteko asmoarekin zelairatuko da taldea. Realak, bestalde, 4-1 irabazi zion Las Palmasi herenegun eta indarberrituta etorriko dira; partidu ho-

rretan, gainera, debutatu zuen partidu ofizialean Raul Navasek talde txuri-urdinarekin. Eibarrek bedertzitzi jokalaria aldatu zituen Malagan eta biharkoan ere seguruenik aldatetak izango dira "jokalarien nekea ez pilatzeko helburuarekin".

Bestalde, Iñaki Goirizelaia EHUKo errektorea Ipuruan izan zen herenegun, unibertsitatearen eta Eibar FT-ren arteko harremana estutzeko bidean. Dagoeneko, hainbat ikastaro antolatu dituzte elkarlanean.

## Machado Tankemans eta Txoko indartsuenak foball-zaletuan

L.P. Machado Tankemans-ekoe 5-0 irabazi zioten Azkena Adahiri, Yosu goleatzaile handiaren bost golekin, eta Bar Txokok 4-0 Esmorgari. Bar Arkupe talde berria ondo sartu da lehiaketan, Slow XOK baino gehiago izan zelako (1-0) eta Garajes Garcia 3-1 nagusitu zitzaion Bar EzDok taldeari. Lehen jardunaldiko beste hiru partiduetan berdinketa eman zen: Areto-Alkideba eta Durango-Ipur partiduetan banako emaitzarekin eta Sporting-Kontent lehiari husna berdinduta.

## Somos-ek erraz irabazi zuen

Eibartarrek denboraldiko lehen partidu ofiziala irabazi zuten Bidasoa B-ri nagusituz 29-13 Euskadiko Kopako partiduan. Fernando Fernandezek mutilek goitik behera kontrolatu zuten neurketa eta prestaketa ona izan zuten biharko, Anaitasuna talde indartsua Ipuruan hartuta, liga hasteko partiduari begira. Taldea asko gaztetu da, Haritza talde filialetik eta jubeniletatik igo baitira hainbat jokalaria. Horrek orain arteko ikuspuntua aldatuko du eta, igotzeko postuei begira baino, oraingoan mailari eusteko asmoz lehiatuko du taldeak. Bataz besteko adina, esaterako, 20 urtekoa da.



## Mendizaleak berriz martxan

Ikasturte berriko lehen irteera egin zuten Deporrek mendizaleek aurreko zapatuan, Bernedotik Marañonerraino 12 kilometroko ibilbidea eginez, Kantabria Mendierroko Zeharkaldiaren bosgarren etapan. "Haizea, euria, lainoa... denetarik" jasan zuen 34 laguneko taldeak, gero Marañon ondo bazkalduta ahaztuko zutena. Bidean Pico La Población gainditu zuten.

# SAGARDO EGUNA 2016

## Urriak 1 zapatua

12:00-14:30  
19:00-amaitu arte

antolatzailea:

laguntzailea:

**EIBARREN Untzagan**

GORENAK  
EUSKAL HERRIKO  
SAGARDO GORRI  
SIDRAS SELECTAS  
DEL PAIS VASCO

Alorrenea	Gurutzeta
Altzueta	Isastegi
Barkaiztegi	Olaizola
Begiristain	Sarasola
Egi-Luze	Zapiain
Gartziategi	Zelaia
Gaztañaga	

## Boliviako Amazoniako sustraiak taulara



Datorren astean, eguenean, Boliviako Ensemble Moxos taldeak "Amazonia" ikuskizuna eskainiko du Coliseoan, 20:30ean. Raquel Maldonadok zuzentzen duen taldeko kide guztiak Boliviako San Ignacio de Moxos hiriko indigena gazteak dira eta hiru hilabeteetan Europan egingo duten birari esker ailegatuko zaigu euren emanaldia. Izan ere, datozen asteotan Espainia, Frantzia, Luxenburgo, Belgika, Alemania, Polonia, Suitza eta Italian erakutsiko dute euren sustraietan errotutako musika eta dantzekin osatutako ikuskizuna. Sarrerak 5 euro balio du eta aldeztu aurretik edo egunean bertan erosteko aukera dago.

Ensamble Moxos eta egiten duten musika ezagutzen dutenek diotenez, "herrian horrelako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izanik, ezin daiteke galdu, benetan merezi duen emanaldia da eta". Gauza bera esan digu aurten hiru hilabete San Ignacio de Moxos-en bitzitzen egon den Mikel Quina eibartarrak: "Gizarte Graduatua ikasi dut eta tesia, berriz, musikak komunitatearen garapenean duen eraginaz egiten dihardut. Boliviara horren inguruko praktikak egitera joan nintzen Taupadak GKE-ren bitartez eta, han igaro ditudan hilabeteetan eguenero taldearen entseguak ikusteko aukera eta zortea izan nuen, benetan harrituta geratzeko moduko ikuskizuna da. Nere moduan hara joandako beste batzuk ere gauza bera esaten zuten musika lehenengoz entzun eta berehala". Ikuskitzen lehena zatian musika barrokoa eta bigarrenean euren, musika indigena jotzen dutela aurreratu digu.

Mundu mailan errekonozimendu ugari jaso duen taldea da eta, besteak beste, Ensemble Moxos herriko jaiek UNESCO-ren gizon-emakume guztien ondare



ukiezin izendapena daukate. Quinak kontatu digunez, "kolonizazio sasoian jesuitek misioa izan zuten San Ignacio de Moxos-en. 7.000 bat biztanleko herria da, batez ere abeltzantza eta merkataritzatik bizi dira eta orain dela 10 urtera arte argindarrik ere ez zuten".

Baina musikak herriaren bizimodua goitik behera irauli zuen: "1996an hara beharrezko joandako Maria Jesus Etxarri moja musika tradizionala gordetzeko arduraz zahar batzuren esku zegoela eta inork ez zela kasu handirik egiten konturatu zen. Zahar horiek desagertzean euren hasitako lanarekin inork jarraituko ez zuela ikusita, ume eta gazte gutxi batzuk bildu eta mu-

sikarekiko zaletasuna pizten ahalegindu zen. Eta hasieran txikia zen ekimen horretatik gaur egun komunitatearengan eragin handiena duen musika proposamena sortu zen: lehenik eta behin Musika Eskola eta, ondoren, Ensemble Moxos. Bigarren hau Musika Eskolako irakasle eta ikasle onenen eskutik eratu zen". Eskolak urtero 200 bat ume hartzen ditu eta, kasu askotan, lana aurkitzeko bidea ere bada.

Musika arloko heziketari ikerketa lanak jarraitu zion: luzaroan gordeta eta ezkutu egondako musika berreskuratu eta gizarteratzeko lana. Probintzia osoan zehar sakabanatuta zeuden milaka eskuizkribuak bildu eta gero, Ensamblarentzat inspirazio iturri bilakatu ziren eta, horri esker, taldeak ahaztutako doinuak biziberritzea lortu du. Horrekin batera, partiturek izaera soziala eman diote taldeari eta, horrekin batera, komunitatearekiko duen konpromisoa sendotu. Horren guztiaren ardatza Musika Eskola da. Bolivian eta Boliviatik kanpora eskainitako ehundaka emanaldik, argitara emandako diskoek, Europan zehar zein Latinamerikan egindako birek...

Eskolak jasotzen dituen diru-laguntzak albo batera lagata, irakasleen soldatak ordaintzeko eta eskolako beste gastuei aurre egiteko dirua Ensemble Moxos-ek eskaintzen dituen emanaldiei esker lortzen dute, "sarreraren salmenta eta salgai ipintzen dituzten diskoak salduta lor dezaketena, horiek dira diru-iturri nagusiak eskolarentzat zein herriarentzat". Taldearen musika Spotify bitartez eskuratzeko aukera ere zabalduta dute.



# Txikiekin optikara

Optiko-Optometristen Eskola Nazionalak eskainitako datuen arabera, eskolaporrotaren ia %30 dago lotuta ikusmen arazoekin. **Ikasturte hasiera da umeari ikusmenaren urteroko azterketa egiteko sasoi egokia.**

Multiópticas-en inolako konpromisorik gabe egingo diegu ikusmen azterketa umei eta horrela, arazorik izanez gero, konpontzeko aukera egongo litzateke klaseen erritmoa galdu gabe.

Multiópticas-eko profesionalak umeak urrutitik ikusteko edo koloreak bereizteko arazoak dituen egiaztatzeaz gainera, begi biek elkarrekin eta banaka duten ikusmena aztertuko du. Era berean, School Visual Test deritzon proba egingo diote (umeei zuzenduta dauden probez osatuta dago).

Gurasoak jakitun izan behar dira umeak ez direla euren ikusmen-arazoez konturatzen eta, beraz, ez dira kexatzen. Horregatik, Multiópticas-eko profesionalak sintoma batzuen zerrenda eskaintzen du eta, seme-alabek ondorengoak egiten badituzte, ikusmenaren azterketa egitea komeniko litzatekeela adierazi nahi die gurasoei:

- Gertuko ikusmena eskatzen duten zereginak, irakurri edo etxeko lanak egitea adibidez, edo urrutikoak (kirola edo aisialdiko beste jarduera batzuk) ekiditen ditu.
- Irakurtzeko zailtasunak ditu: hizkiak edo hitzak aipatu ez edo nahasten ditu, atzamarra erabiltzen du irakurketan ez galtzeko, postura

*behartua hartzen du edo liburua ohi baino gehiago gerturatzen du.*

- Bekozkoa ilundu, begiak kliskatu edo burua eta lepoa biratzen ditu urrutitik edo gertutik begiratu behar duenean.
- Sarri izaten du narradura begietan idatzi edo irakurtzerakoan eta betazalak sarri igurtzen ditu.

- Buruko mina dauka.

- Erraz egiten du estropezu eta ez ditu distantziak ondo kalkulatzeko.
- Bere adinerako irakurmenaren ulermen baxua dauka.

**Etor zaitez Multiópticas-era eta inolako konpromisorik gabe egingo dizugu ikusmen azterketa!**



## APARAILU ELEKTRONIKOAK

Gaur egun teknologia eskolara iritsi da, eta etxean ere umeek orduak ematen dituzte argi hori igortzen duten pantailen aurrean. Hori dela eta, beharrezkoa da umeen begiak babestea argi mota horrengandik.

Multiópticas-en Crizal Kids Prevencia lentine fabrikatzailea den Essilor etxerekin egiten dute lan. Aparailu elektronikoen ibiltzeko bereziak diren lente horiek apurtezinak dira, Airwear mate-

riarekin eginda daudelako (lente arrunta baino hamabi aldiz erresistenteagoak dira) eta argi kaltegarria (uridinbioleta eta ultramorea) iragazten dute, argi erabilgarria pasatzen uzten duten bitartean; erabateko gardentasuna bermatuz.

Umeen ikusmenaren zaintzari hasieratik jarri behar zaio arreta berandu izan aurretik, txikiaren begiak babestea ezinbestekoa delako.



**97€**  
**2 mó betaurreko graduatu**  
 erreflexuen aurkako leiarrekin  
 +  
 School Visual TEST-a  
 (UMEEI zuzendutako proba bereziak)

[www.multiópticascgipuzkoa.com](http://www.multiópticascgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENERIA  
 IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2  
 Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

**MULTIÓPTICAS**  
 lehena zerbitzu optikoetan



**AINARA LEGARDON**  
(musikari eta produktorea)

**- Norientzat da tailer hau?**

Ikastaroa artistei, edozein diziplinako sortzaileei eta kultura-eragileei eskainitakoa da. Oso garrantzitsua da krazio-komunitatea osatzen duten pertsona hauek jabetza intelektualaren inguruan formatuta egotea, euren obrekiko erabaki arduratsuak hartzeko. Jakin egin behar dute euren obra sortzeak zein esku-bide dituen berezko eta zeintzuk diren euren jabetzakoak. Desberdinu egin behar da, adibidez, zeintzuk diren lizentzia askeak eta zeintzuk ez, eta hauen bateragarritasunak eurek aukeratutako kudeaketa modeloekin. Era berean, ikastaro honetan lantzen diren erramintekin eta aholkuekin, kultur kudeaketa ari-

## “Artistak izaten gara kaltetuenak negoziaketetan”

Ainara LeGardon bilbotarrak 25 urte daramatza musikaren munduan lan egiten. Honek sortu zizkion “beharrek” bultzatuta, jabetza intelektualaren inguruko ikasketak egin zituen eta musikariaren kontratuekin zerikusia zuen guztia ikertzen aritu zen. 2003. urtean bere zigilu diskografiko propioa sortu zuen bere lanak ekoizteko. Bihar “Propiedad Intelectual y Gestion de Derechos” tailerra emango du Biharran-en. Izena emateko apuntatubiharrian@gmail.com helbidera idatzi beharko da.

tzen diren pertsonak ere tresna baliagarriak izango dituzte euren gaitasunak modu eraginkorrean garatzeko.

**- Informazio nahikoa dago gai honen inguruan?**

Ikaragarriko gabezia dago informazio objektiboari dagokionez. Artistak izaten gara kaltetuenak diskografiekin, argitartzeekin edota banaketa-enprekin negoziatzerako orduan. Baina beharrezko informazioa izanez gero, ahaldunduz, geure sorkuntze jabetu gaitzke eta horrela, negoziatzeko orduan jarrera sendoago bat lortu dezakegu eta erabaki komenigarrienak hartu.

**- Modu sinplean azalduta zer da jabetza intelektuala?**

Ezin daiteke modu sinplean azaldu, ez zehaztasunez behintzat. Horregatik ematen ditut tailer hauek. Sarritan, artistek mezuak bidaltzen dizkirate zerbait 5 minututan azaltzeko esanez, (SGAEk nola funtzionatzen duen adibidez) eta galdera hauek saihesten saiatzen naiz. Ikastaroan jabetza intelektualari sarrera bat eginez hasten gara. Copyleft-en inguruan ere (mugimendu sozial eta filosofikoa) hitz egiten dugu eta Creative Commons lizentzietan sakontzen dugu. SGAE, VEGAP edota CEDRO bezalako erakundeak nolakoak diren ikasteari eskaintzen diogu ikastaroaren zati handienetako bat. Eta bukatzeko, kudeaketa modelo berrien erronkak aztertzen ditugu.

## “Testurak” bertso ekimena Eibarren

Emakumeen Etxeen Sareak sortu duen “Testurak” ekimena Eibarren abiatuko da irailaren 30ean, 19:00etan Andretxeak hartuko duen saioarekin. Emakumeen Etxeen proiektuetatik abiatuz prestatu duten bertso saioan Ainhoa Agirreazaldegia, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia eta Saioa Alkaiza bertsolariek hartuko dute parte eta ekitaldia doan eta irekia izango da. Abenduaren 1era arte herririk herri ibiliko dira aipatutako bertsolariak eta ekimenarekin bat egin duten beste batzuk.



## Txanogorritxo basatierna Coliseoan

Gaur 20:30ean “Caperucita Feroz” antzezlan hartuko du Coliseo antzokiak taula gainean, Glu Glu konpainiaren eskutik. Galder Perezen zuzendaritzapean, antzezlanean Ylenia Baglietto eibartarrak jardungo du Olatz Ganboa, Lander Otaola, Leire Ucha, Mikel Losada, Mari Cruz Melgosa eta Diego Perez antzezleekin batera. Ikuskizun jostagarri bat sortzeko asmoz, sorpresa bat bestearen atzetik lotzen joaten den komedia musikala da gaur antzeztuko dutena: “Emanaldiak ipuin tradizionala hankaz gora ipintzen du: helburu bat lortzeko ez dago eskrupulurik, grinak ez du arrazoirik eta Pandoraren kutxa edonoiz zabaltzen da”. Sarrerak 10 euro balio du.





## Euskalduntze kanpaina bereziak abian

Udalak, AEKrekin eta Udal Euskaltegiarekin lankidetzan, kolektibo estrategikoak euskalduntzeko baldintza bereziak eskaintzen ditu, horren berri emateko aurreko astean Portalean egindako bileran aditzera eman zutenez. Kolektibo estrategikotzat honakoak jotzen dituzte: 12 urte artekoen gurasoak; 16 urte bettak dituzten ikasleak; langabetuak; merkataria eta ostalariak; eta 65 urte edo gehiagoko jubilatutak. Aipatutako kolektiboren bateko kide direnek matrikularen erdia bakarrik ordaindu beharko dute Udal Euskaltegian edo Eibarko AEKn matrikulaz inon. Horretarako bete beharreko baldintzak hauek dira: Eibarren erroldatua egotea eta klaseetara %85 edo gehiagoko asistentzia izatea. Interesatuak informazio gehiago eska dezakete Udal Euskaltegian (943 200 918 / euskaltegia@eibar.eus) edota AEKn (943 201 379 / eibar@aek.eus).

Diotenez, "kolektibo estrategikoetako diru-laguntza jasotzen duten eibartarrak gero eta gehiago dira. 2014an ikasleen %30ak izan zuen deskontua matrikulan, 2015ean %32ak eta 2016an %49ak". Guztira Eibarren euskaltegi bietan azken urteetan ikasturte bakoitzean 300 ikaslelik gora matrikulatu dira.

## Bertso saio musikatua irailaren 30ean

Aurreko urteotan egindakoaren bideetik, bertso saio musikatua antolatzen du Hankamotxak bertso eskolak datoren irailaren 30erako, Txaltxa Zelaiko auditorioan. Saioa 22:30ean hasiko da eta lau bertsolarik hartuko dute parte, Haritz Casabal gai-jartzailearen aginduetara: Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Oihana Iguaran eta Manu Gojogana. Bertsolariak Ixak Arruti (gitarra) eta Eneko Sierraren (saxofoia) doinuaren erritmora abestu beharko dute. "Bari-xaku arrats paregabea igarotzeko aukera izango dela eta", bertsozale orori bertaratzeko gonbidapena luzatu die bertso eskolak.



## Bertsozaleentzako deia

...eta kitto! Euskara Elkarteak Bertso Taldea indartzeko asmoa duela-eta, talde horretan parte hartzeko deia egin nahi die herriko bertsozaleei. Urtean pare bat ekintza antolatzen ditu ...eta kitto!-k bertsolariaren inguruan, eta beste horrenbeste bilera ekintza horiek antolatzeko, San Andres bertso-paper lehiaketa eta jaialdia alde batetik, eta Arrateko Bertso Afaria bestetik. Norbaitek taldean parte hartzeko gogoia izanez gero, deitu dezala ...eta kitto!-ra (943200918) edo emaila bidali elkarte@eta-kitto.eus helbidera.

## Euskal dantza helduentzat

Kezka dantza taldeak helduentzako ikastaroak antolatu ditu. Plazako euskal dantza tradizionala ikasi eta lantzeko ikasturte osoko ikastaroak izango dira, Portalean, aukera zabalarekin: hasiberri taldeen klaseak martitzenetan (19:00etatik 20:00etara), eguenetan (10:00etatik 11:30era) eta barixakuetan (17:00etatik 18:30era) emango dituzte eta jarraipen taldeentzat, berriz, klaseak martitzenetan (10:00etatik 11:30era), martitzenetan (20:00etatik 21:00etara) eta barixakuetan (18:30etik 20:00etara). Ikastaroak urrian hasi eta maiatzaren amaierara arte izango dira. Informazio gehiagorako eta izen-emateko 943 53 04 40 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, kezka@dantzan.com helbidera idatzi.



## Flamenkoaren esentzia

Datorren barixakuan, 20:30ean "Esencia flamenca" ikuskizuna hartuko du Coliseoak, Castro Romero Flamenco eta Suite Española taldeen eskutik. Ricardo eta Rosario Castro Romero zuzendariekin batera Jose Maria Castro Romero, Marina Sagardoy, Fran Alcantara eta Alba Aranzanak jardungo dute dantzan. Granadako Castro Romero anai-arrebak "Danza Cultura Viva" Sari Nazionalaren jabe dira eta munduan ospe handia duten antzoki askotan (Bolshoi, Mariinsky eta Kremlin antzokietan, besteak beste) jardun dute artista gonbidatu gisa. Sarrerak 18 euro balio du.





UNAI ARTETXE

**Bizi**

Tamalez izan ditut bidean geratutako lagunak. Oroitzen naiz Koldorekin, Gaizkarekin edo Etorrekin. Gazteak denak, bapatean agurrik esan gabe joandakoak. Gogoan ditut amama, Jexux eta beste asko, agur esateko aukerarik gabe joandakoak.

Tarteka begirada atzera bota, eta egun beraiek hemen egonda hau zer izango litzateken pentsatzen aritzen naiz. Penaz, bai, baina era berean harrotasun handiz. Beraiekin harro, beste garai haietan bizitako guztiak ni egun naizena izatera lagundu didatelako.

Ez dut inolako erlijiotan sinisten, baina ziur naiz nire egunerokoan aurrera egiteko indarra ematen didatela. Azken batean, bizitzeko nire jarreraren beraiena ere badagoelako. Beraien irri, poz eta laguntasunak egun nireak direlako.

Askotan ahazten zaigun arren, bidean jarraitzen dugunok zorte handia dugu. Momentu txar zein onetan aurrera begiratu beharra daukagu, ibilbidea luzea izanik ere motza izan daitekeela jakitun. Eta gozatu. Momentu txikienekin disfrutatu, inguruan daukagunekin eta etorkizunean etor daitezkeenekin, baina beti, beti, beti, oraina biziz.

**Juan Palaciosen luzemetraia Zinemaldian**

Kopenhagen bizi den Juan Palacios eibartarraren "Pedalo" luzemetraia Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten aurreko asteburuan eta Zinemira atalean saria jasotzeko aukera dauka, beste zazpi lanekin batera lehian dago eta. "Pedalo" eibartarraren lehen luzemetraia da: 71 minutuko iraupena duen lanak hiru lagunek euskal kostaldetik egindako bidaia kontatzen du eta, horrekin batera, zine zuzendari hasiberri batek egiten duen bidaia paraleloa. Aurreko barixakuan Zinemaldian estreinatu zuten lana 2012ko udan filmatu zuten, Kopenhagen zegoela sortu zitzaion ideari jarraituta. Baina grabazio lanarekin hasi eta aurreikusitako ezer ez zen bete eta, besteak beste, euskal kostaldetik pedalo batean bidaiatzeko zailtasun ugari dagoela konturatu zen zuzendaria. Hala ere, ehun ordutik gora grabatu zituzten eta, material guztia hartuta, Kopenhagera bueltatu zen Palacios. Han zegoela, filmatutako irudiei buelta batzuk eman eta, hasierako asmoa albo batera laga eta gero, estreinatu berri duten lana pausoz pauso muntatzen joan zen, artisau erara. Nazioarteko jaialdian estreinatu duten lana etxean, ordenagailu eramangarri

PEDALÓ  
JUAN PALACIOS - (ZINEMIRA A CONCURSO)

batean editatu du eta ekainean amaitu zuen lana. Luzemetraian parte hartu duen lantaldea ere oso txikia da, bere arrebak eta lagun batzuk osatutakoa.

Palacios ikus-entzunezko ikasketak osatzeko asmoz joan zen Danimarkara orain dela bost urte eta harrezkero han bizi da, Kopenhagen. Orain arte hainbat sari jaso ditu lan laburrageekin: CTL-Imagen y Sonido Iruñeko eskolak antolatutako Europako "59 segundos" ikus-entzunezko lehiaketan birritan jaso du saria eta, horrez gain, bere lanetako bat Madrilgo Reina Sofia Museoaren bideo bildumarako aukeratu dute.

**Sagardo Eguna aurkeztu dute**

Urriaren 1ean 23. edizioa beteko duen **Sagardo Eguna aurkeztu zuten eguaztenean** ...eta kitto! Euskara Elkarteak Maider Aranberrik eta Anartz Mitxelena. Urteroko martxan, aurten ere urriko lehen zapatuan ospatuko da, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta, egun osoan Untzagan: goizez 12:00etatik 14:30era eta arratsaldean 19:00etatik hasi eta sagardo guztia amaitu arte. Azken urteotan bezala, Gorenak Sagardoak osatzen duten 13 sagardotegietako (Alorrene, Altzueta, Barkaiztegi, Begiristain, Egi-luze, Gartziategi, Gaztañaga, Gurutzeta, Isastegi, Olaizola, Sarasola eta Zapiain) sagardoa dastatzeko aukera izango da egun osoan. Aurten plaza bakarra, udaletxekoa, erabiliko da.



Mitxelena eta Aranberri herenegun egindako aurkezpenean.

Goizez, umeendako ohiko jokoekin batera, Untzagan bertan ipiniko den tolaletik irtengo den mustioa dastatzeko aukera izango da. Horrekin batera, Baztan inguruan sagardogileek erabiltzen zuten tresna, kirikoketa bertatik bertara nola erabiltzen den erakutsiko dute. Hori guztia txalapartariak eta Marisol Arrillagaren soinu-joleak girotuta. Eta egunean bertan lauzpabost sagar mota dastatzeko aukera emango diote jendeari.

Sagardo Egunean bi eratako tiketak ipiniko dituzte salgai eguerdiko 12:00etatik aurrera, udaletxe parean izango den salmenta puntuan. Tiket nagusiak 6 euro balioko du eta urteroko moduan horren trukean edalontzia, zapia, pintxoa eta txotx-a

izango dira. Eta bakarrik pintxoa nahi duenak (txorizoa eta gazta menbriloarekin) 1'5 eurotan horretarako tiketa erosteko aukera izango du. Antolatzaileen berbetan, "egun horretan 2.340 sagardo botila, 200 kilo txorizo eta 15 kilo gazta banatuko ditugu. Horrelako eguna antolatzea posible egiten duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, bai laguntzera etortzen den 60 bat laguneko lantaldeari baita udalari, Gorenak elkarteari eta horrelako jai antolatzea posible egiten duten beste guztiei ere".



**Bisita gidatuak GIZABURUAGAN**

Gizaburuagako ondare arkeologikoa ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte biharko eta urriaren 1erako Soraluez Alkarrekinetako Ibaiek eta mendiak lan-taldeak. Bi orduko bisitaldia izango da, Gizaburuagatik abiatuta (Ezozitik gora doan bideak eta Karakateko aparkalekutik doanak bat egiten baitute). Hitzordua 10:30ean izango da. Interesa duenak aurrez izena eman beharko du 943 46 61 42 telefonora deituta (09:00etatik 14:00etara) edo idazkaritza@aranzadi.eus helbidera idatzita.



**Artzai txakurrak OÑATIN**

Domekan 57. Nazioarteko Txakurren Txapelketa hartuko du Oñatik, 10:30etik aurrera eta, hori aprobetxatuta, ADOGI etxerik gabeko animalien adopzioarako Debabarrenetako elkarrekin eta Indar Arabak azoka-txikia ipiniko dute, gure eskualdean babes barik dauden animaliei lagundu ahal izateko dirua batzeko asmoz. Artisautza saltzeko postuak eta erakustaldiak eongo dira, besteak beste.



**Erdi Aroko azoka ERMUAN**

Datorren asteko barixakuan 11:00etatik aurrera Erdi Aroko azoka hartuko du Ermuko San Pelaio plazak, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruaren eskutik. Azokaz gain, urriaren 2ra arte horren inguruko hainbat ekitaldi osagarri antolatu dituzte.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Eulogio Miguel Martin. 75 urte. 2016-IX-15.
- Alberto Orozko Larrañaga. 68 urte. 2016-IX-15.
- Rosario Atxotegi Gisasola. 91 urte. 2016-IX-16.
- Eugenio Albeniz Ormaetxea. 57 urte. 2016-IX-17.
- Mohammed Noaimi. 69 urte. 2016-IX-18.
- Francisco Javier Kortajarena Neira. 55 urte. 2016-IX-19.
- Arantza Uriarte Salsamendi. 83 urte. 2016-IX-19.
- Petra Garcia Garcia. 80 urte. 2016-IX-21.
- Lucas Plaza Uriguen. 69 urte. 2016-IX-21.

**jaiotakoak**

- Maddi Amesti Aranzabal. 2016-IX-14.
- Oihan Kortazar Romero. 2016-IX-15.
- Sabah Berkany. 2016-IX-15.
- Leire Santos Puertas. 2016-IX-16.
- Adrien Rivas Sobrino. 2016-IX-18.

**farmaziak**

- Barixakua 23  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 24  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 25  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 26  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Martitzena 27  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 28  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguena 29  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 30  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN- Iraundegi (Calbeton, 19)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

9	1	8	6	4	3	5	2	7
6	2	3	9	5	7	4	1	8
7	5	4	2	1	8	9	6	3
4	3	1	7	9	2	6	8	5
2	6	9	3	8	5	7	4	1
8	7	5	1	6	4	3	9	2
5	4	6	8	7	1	2	3	9
1	9	2	5	3	6	8	7	4
3	8	7	4	2	9	1	5	6

**SUDOKUA**

	7		6	5				
				1			2	9
		9					1	5
9	2	6				5		
		4				1	3	2
7	8					9		
4	1			9				
				2	8		5	

## Barixakua 23

### INAUGURAZIOA

**19:00.** "Biharra. Arimakoa", Jose Zugastiren erakusketa. Portalean.

### LEGARREKO JAIK

**19:30.** Txupinazoa eta kalejira trikitilari eta buruhandiekin.


**20:30.** Patata tortilla txapelketa.

**21:00.** Herri afaria auzoko umeentzat.

**22:00.** "Non da elefante gorria?" umeendako ikuskizuna. Ondoren musika txosnan. Legarren.

### ANTZERKIA

**20:30.** "Caperucita Feroz" (Glu Glu). 10 euro. Coliseoan.



## Zapatua 24

### LEGARREKO JAIK

**11:00.** Kronoeskilara, San Juan kaletik hasi eta txosnaraino.

**12:00.** Kalejira trikitilari eta buruhandiekin.

**12:15.** Pintxo-triki-poteoa: Piztu elkarte, Legarre Gain elkarte eta txosna.

**13:00.** Umeentzat jolasak eta igel-toka txapelketa, txosnan.

**14:30.** Auzo bazkaria.

**16:00.** Musika dantzagarria helduentzat.

**17:00.** Umeendako ikuskizuna: "Trotamundis zirkoa", Pompom taldearen eskutik.

**18:30.** Txokolatea eta bizkotxoak.

**19:30.** Kalejira trikitilari eta buruhandiekin.

**20:00.** Erromeria: "Mirari eta Aintzane".

**22:30.** Kontzertu akustikoa Eirband eta Kokein taldeekin.

### TAILERRA

**18:00.** "Propiedad intelectual y gestión de derechos" tailerra, Ainara LeGardon-en eskutik. Biharran-en (Ubitxa, 16).

### UMEENDAKO ZINEA

**18:00.** "Angry Birds", doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

## Martitzena 27

### MAGOA

**17:30.** Kidam magoaren ikuskizuna, Berbetan eta Ongi Etorri Berbetan-era programen barruan. Amañan (Torrekuako parkean).

## Eguaztena 28

### MAGOA

**17:30.** Tor magoaren ikuskizuna, Berbetan eta Ongi Etorri Berbetan-era programen barruan. Urkizuko parkean.

### AGINAGAKO JAIK

**18:00.** Kanpai iraulketa, San Miguel bezpera dela eta. Aginagan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 29

### AGINAGAKO JAIK

**11:00.** Meza nagusia, Usartza txistulari bandarekin, San Miguel eguna ospatzeko.

**12:00.** Lunch-a eta umeendako jolasak.

**14:00.** Lagunarteko bazkaria Usartza txistulari bandarekin. Aginagan.

### HITZALDIA

**19:00.** Eskulturaren prozesuari buruzko solasaldia Jose Zugasti artistarekin. Portalean.

### MUSIKA

**20:30.** "Amazonia" (Ensamble Moxos, Bolivia). 5 euro. Coliseoan.

Boliviarrak "Amazonia" eskainiko dute.



## Erakusketak

### Irailaren 30era arte:


- MANU BARREIROREN "Miradas y almas" argazki erakusketa. (Klub Deportiboan)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki erakusketa. (El Ambigú tabernan)
- JOAN PARERAREN "El pas del temps" argazki erakusketa. (Portalea tabernan)

### Urriaren 16ra arte:

- JOSE ZUGASTIREN "Biharra. Arimakoa" erakusketa. (Portalean)


### Urriaren 29ra arte:

- JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki erakusketa. (El Corte Inglesean -ekitaldi aretoan-)



Jose Antonio Fernandez argazkiak urriaren 29ra arte egongo dira ikusgai.

**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



1, 2, 3, 4 eta 5, esku bete atzamar. Zorionak, LUKEN, eta musu bat etxeko danon eta, batez be, zure arreba Liberen partez. Segi holan!




Zorionak, LAIA, bixar bederatzita urte beteko dozuz-eta. Ez dago zu bezalakorik: zoragarrixa zara, preziosa!




Hamar bat zuretzako, PAULE. Zorionak eta holan jarraitu!! Patxo potoluak Xabier, Maddi, ama eta aittaren partez.




Zorionak, UNAI, astelehenian 10 urte beteko dozuzelako. Ondo pasatu eguna, maittia! Familixaren partez.



Zorionak, NOA, hillaren 26xan hiru urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Danel eta Anerren partez




Zorionak, MALEN, laztana, martitzenian urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Mirenen partez.




Zorionak, MALEN, domekan 11 urte egingo dozuzelako. Aitta eta amaren partez.



Zorionak, LUKE, atzo bi urte bete zenduazena-eta. Patxo potolua etxekuen eta lagunaren partez!



Zorionak, JONE, haraiñegun bost urte egin zenduazelako. Musu pillua etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, astelehenian bederatzita urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, OIER Salas, atzo zortzi urte bete zenduazena-eta. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, DANEL, txapeldun! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, bikote!! JUNEK 10 urte egin zittuan abuztuaren 24an eta AMATXOK gaur betetzen dittualako. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, bikote! EKHik zortzi urte egingo dittu-eta martitzenian, eta IRATIK 11 bete zittualako abuztuan. Laztan haundi bat famelixaren partez.

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 608-588444.
- Logela alokatzen dut Amañan, etxe guztia erabiltzeko eskubidearekin. Familia giroa. Tel. 632-607193.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 625-019711.
- Pisua hartu nahi dut alokairuan Eibarren. Tel. 622-824468.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 722-555027.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 615-394820.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 620-689311.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 677-700968.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lan egiteko. Gidatzeko baimena eta autoa. Tel. 664-013591.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-626975.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-044382.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-144954.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-802772.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-588444.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-607193.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interneta. Tel. 602-193518.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-831103.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-372074.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-558402.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko, etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-966192.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Orduka. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-420183.
- Gizona eskaintzen da soldadore, pintore edo txofer modura. Tel. 632-022500.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta asteburuetan ere. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-738472.
- Magisteritza titulua duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-715066. Saioa
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-691739.
- Hezkuntzan espezializatutako neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta eurekin etxeko lanak egiteko. Tel. 688-639371.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegoarako eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-252001.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-315294.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interneta. Tel. 632-309899.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da gauze eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-247429.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-408771.
- Emakumea eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-312937.

### 4.2. Langile bila

- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Bidali curriculum-a: esteticieneibar@gmail.com
- Eibarko enpresa batek arteztaille konbentzionala behar du. Bidali curriculum-a: recificador.eibar@gmail.com
- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegiko batean. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.
- Pertsona euskalduna behar dut arratsaldetan umeak zaintzeko. Deitu 14:00etatik 16:00etara. Tel. 635-740726.
- Estetizista behar da asteburuetarako Eibarko ilepaindegiko batean. Esperientzia manikura eta makillajean. Tel. 615-795967.
- Soin Hezkuntzan lizentziatua kontratatuko genuke Eibarko gimnasio batean, jardun osoz. Bidali curriculum-a hilaren 9rako: bpxport@bpxport.es
- Emakume euskalduna behar da Eibarren umeak zaintzeko. Tel. 678-890340.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- DBH4ko klase partikularrak etxean eman-go dizkidana behar dut: gai guztiak orokorrean. Tel. 636-523804.
- Eibarko akademia batek ingeles eta frantseseko irakasleak behar ditu. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum-a: irakasleibarCV@gmail.com

### 5.2. Eskaintzak

- Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.
- Magisteritza eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrak emateko. Tel. 638-715066. Saioa.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Neska eskaintzen da LH, DBH eta Batxilergoko klaseak emateko. 3 laguneko taldeak. Tel. 943-127365 eta 685-739709.
- Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da haur eta gazteei klaseak emateko. Ingeles titulua. Tel. 692-706012. Leire.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Magisteritza ikasitako ingeleseko titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- Magisteritza ikasitako EGA titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 677-539087.
- Musika klase pertsonalizatuak ematen ditut zure etxean. Zure beharretara egokitutako metodo alaiak: biolina, pianoa, musika-hizkuntza, musikoterapia. Adin guztiak. Tel. 645-513273.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Sehaska eta 0'90eko oherako bi koltxa salgai. Ia berriak denak. Tel. 943-203014.
- Narruzko bi sofa salgai (bat birezintzat, besteak bakarrarentzat). Tel. 619-163031.
- 1,35x1,90eko koltxoia (Woolmark markakoa) salgai. Biskolastikoa eta transpiragarria. Tel. 619-673058.
- Mountain-bike bizikleta (Conor markakoa) salgai. Berria. Tel. 619-673058.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Pultsera galdu nuen eguaztenean Julian Etxeberria eta Calbeton kaleen artean. Sarrituko da, duen balio sentimental delata-eta. Tel. 635-731659.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus

Aldatzea jarrera bat da.  
Irabaztea gozamina.



Hyundai Tucson Berria.  
2016 urteko auto  
onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berria apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) helbidean



**OARSO CAR**

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

**ELGOIBAR**

Olaso Polig., 17

**943 74 14 80**



Hyundai Tucson Gama:  
CO<sub>2</sub> Emisioak (gr/km):  
119-175. Kontsumo mistoa  
(l/100 km): 4,6-7,5

## Alemana, frantsesa eta ingelesa

### Ordutegi zabala!

- Maila guztiak
- Mintzamina lantzeko klaseak
- 2 egun astean (aukera ezberdinak)
- 2-3 ordu astean (goizez edo arratsaldez)
- Titulu ofizialetarako prestakuntza: FCE, CAE, Proficiency, DELF, DALF, Zertifikat Deutsch etab.

**2016/2017 ikasturtea urrian hasiko da! Animatu!**

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

9 4 3 7 4 4 0 4 0  
w w w . i l s . e s

**ILS**



# Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun

**innovadental**  
clinicas

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)